

Arrasateko PPko zinegotzi baten etxeari eraso diote molotov koktelak jaurtiz

Iturgaitzek Ibarretxeri eskatu dio «kriminalei babes politikoa emateari uzteko»

Agentziak / Donostia

Jose Ramos Prieto Arrasateko (Gipuzkoa) PPko zinegotziaren etxebizitzari eraso zioten atzo goizaldean ezezagun batzuek eta molotov koktelak jaurti zituzten leihotako baten kontra. Zinegotziak «beldurrik ez» duela esan eta erasoak Arzalluzek etorkinei buruz esandakoek «eragin ahal izan dutela» gaineratu zuen.

ATZO goizaldean ezezagun batzuek molotov koktelak jaurti zituzten Arrasateko (Gipuzkoa) PPko zinegotzi Jose Ramos Prietoren etxebizitzako leihotako baten aurka. Horren eraginez, erasoak jazo zenean itxita zegoen pertsona hondatuta gelditu zen. Erasoak gertatu zen momentuan, zinegotzia eta bere familia lo zeuden eta koktelek eragindako zatakat esnarazi zituen. Ramosen etxea Udaltalde kalean dago eta bertako horman PP hiltzaile eta PP kartzelero esaldiak azaldu ziren. EUSKALDUNON EGUNKARIAN jasotako dei anonimo batek bere gain hartu zuen atzoko erasoak, eta PP eta PSOEn «indarkeria faxista» salatzea zuela helburu azaldu zuen.

EAEko PPko presidentea Carlos Iturgaitzek eta PPko zinegotziak prentsurrekoak eman zuten Arrasaten, jazo-takoaren balorazioa egiteko. Iturgaitzek EAJri exijitu zion Lizarrako forotik alde egiteko



Jose Ramon Prieto zinegotzia PPko buruekin, kaltetutako bere etxearen aurrean.

JOSE RAMOS

Arzalluzen hitzak

■ ■ ■ «Nire aurkako erasoak Arzalluzek etorkinez esandakoek eragindakoa izan daiteke»

eta Ibarretxe lehendakariari, berriz, «kriminalei babes politikoa emateari» uzteko, «ezin baita segundo bakar bat gehiagoz, herri honetako zinegotziei erasotzen dieten

antidemokraten botoetan, kriminalen etan eta kriminalen konplizeen etan sustengua bilatu». Iturgaitzen hitzetan, jeltzaleek hausnarketa egin behar dute, foro horretan «hiltzaileen konplizeekin» zer egiten ari diren argitzeko.

PPko buruzagiaren ustez, erasoaren xedea abertzale ez direnak «lurralde honetatik fisikoki eta politikoki desagertatzea da», eta «euskaldun eta espainiar sentitzen diren ez-abertzaleentzako apart-heid-a sortu nahi du, malektak egin eta lurralde honetatik alde egin beharra izan dezaten». Horren aurrean, PPk «guztion eta guztiontzako

herri bat eraikitzeko lanean» jarraituko duela esan zuen Iturgaitzek, «oso harro gaudelako Arrasaten bezala baldintza txarretan lanean diharduten pertsonetaz».

Arzalluzen hitzak «eragindako» erasoak

Bestalde, Jose Ramos Prieto zinegotziak erasoaren aurrean «amorrue» sentitzen duela esan zuen. Jatorriz Ourensekoa den zinegotziak erasoak Arzalluzek etorkinei buruz esandakoek «eragindakoa izan daitekeela» erantsi zuen. «Etorkinok hemen egoteko eskubiderik ez dugula esateagatik» eskerrak eman zizkion Arzalluzi eta «bere alderdiaren arazoengatik kezkatu eta gu bakean uzteko» eskatu zion EBBko buruari.

Aznarrek «babes osoa» adierazi dio prentsari ETaren erasoaren aurrean

Agentziak / Madril

JOSE MARIA AZNAR Espainiako gobernuako presidentea «sustengu, elkartasun eta babes osoa» adierazi zien atzo «prentsako profesionalei», Carlos Herrera eta Jesus Maria Zuloaga kazetariak ETaren aldetik jasandako erasoaren aurrean. Zuloagak herenegun bonbapaketak jaso zuen lan egiten duen *La Razón* egunkari espainiarrean, baina berak zabaldu aurretik atzeman zuten kazetako segurtasun zerbitzuek, eta ondoren Poliziak indargabetu zuen.

Jose Maria Aznarrek «guztiok bat egiten dugun terrorismoaren aurkako lanean» kokatu zuen kazetaritzan ari direnei adierazitako babesa.

«Sofistikazio txikiko» lehergailua

Bestalde, Jaime Mayor Oreja Espainiako jarduneko Barne ministroak Zuloagari zuzendutako bonbapaketaren inguruko zehaztasunak eman zituen atzokoan. Lehergailua «sofistikazio txikikoa» zela adierazi zuen Mayor Orejak eta horren igoera «ETA edo bere ingurukoren bat» dela gaineratu zuen, nahiz eta jarraian oraindik edozein xehetasun eman ahal izateko goizegi dela onartu.

Aznarren inbestidura saioa amaitutakoan Madrilgo Diputatuen Kongresuan egindako adierazpenetan esan zuenez, Espainiako segurtasun indarrak «arreta osoarekin» ari dira Jesus Maria Zuloagak jasotako lehergailuaren ezaugarriak aztertzen.

Euskal Herriak ezingo dituztela «bota» esan dute Arrasateko PSEko zinegotziek

Efe / Donostia

ARRASATEKO zinegotzi sozialisten udal taldeak «abertzaleek ez-abertzaleen aurka daukaten estrategiarren barruan» kokatu zuen atzo azken egunotan gutun mehatxugarriak jaso izana. Blanca Roncal, Ismael Gonzalez eta Matilde Martin zinegotziek eta udal taldeko bozeramaile Paco Garciak «Euskal Herrian dagoen demokrazia faltaren» eta presoaren sakabanaketaren erantzule izatea egotzen dizkieten gutunak jaso dituzte. Gainera, horietan Euskal

Herriak «alde egiteko» eskatu zaie.

Atzo goizean Arrasateko Herriko Etxean emandako prentsurrekoan lau zinegotziek azaldu zuten, «gure sinesmen demokratikoekin jarraituko dugu eta ez gara hemendik joango, herri honen zati bat ordezkatzeko dugulako, eurak adinakoa edo handiagoa». Honelako ekintzekin ez dituztela beldurtuko edo alde egitera behartuko adierazi zuten hautetsiek. «Ez gara okupazio indarrak eta ez dugu inor jazaritzen, jazarrita sentitzen

direnak eta mehatxatuak gu baikara», esan zuen bozeramaile sozialistak.

Paco Garciaren esanetan, Aberri Egunean EAJk Bilbon egindako ekitaldi politikoan Xabier Arzalluzek «herri honetan jazotzen denaren errudun gaita aipatu» adierazitakoa «ez da egia, eta abertzaleei egotzi zien gertatzen ari denaren errua. «Horren frogak da mehatxuak oposizioan gaudenok jasotzen ditugula, eta ez Eusko Jaurlaritzan daudenek», erantsi zuen Paco Garciak.



URRETXUKO UDALA

IRAGARKIA

Udalbatzak 2000ko apirilaren 10ean egindako ohiko bilkuran, planeamenduko Arau Subsidiarioen Elizalde Sektoroko Estatutokoak eta lharduketa Oinarriak onartu zituen.

Guztiok ezagutzeko argitaratzen da, adieraziz behin-betiko den akordio honek bide administratiboari amaiera ematen diola eta beronen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoak jar ditzakeela EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Sailean bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 109.c) artikuluekin bat etorritik.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa jar daiteke ebazpena eman zuen organoaren aurrean hilaetako epean, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Urretxu, 2000ko apirilak 25.
Alkateak. Sin.: Pello Gonzalez Argomaniz.